



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 23a

56. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00003. Foru-lege proiektua, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SL-ri mailegu bat emateko Sunsundegui SA-ri (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00155. Galdera, Kultur Mezenasgoaren Foru Legea berrikusi eta gaurkotzeari buruzkoa. Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00156. Galdera, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren Osoko Bilkura bereziaren ondorioei buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00157. Galdera, Nafarroako kulturaren sektorean Adimen Artifizialaren erabilerari buruzko erregelamendu bat ezartzeari buruzkoa. Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00158. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean ama-esneko banku bat sortzeari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00159. Galdera, Nafarroan espezialitaterik gabeko sendagileak kontratatzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00160. Galdera, jakiteko ea Gobernuak zer neurri hartuko duen Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitazioan beste behin izandako atzerapena dela-eta. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00161. Galdera, Gobernuaren eledunak EH Bilduri buruz egindako adierazpenei buruzkoa, ETA banda terroristatzat hartzen ez duela-eta. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00162. Galdera, jakiteko ea zer zuzentze-neurri hartuko diren, prebentzio-neurriez gain, Nafarroan herritarren segurtasunik eza igo dela ikusita. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00163. Galdera, Nafarroako Gobernuko administrariaren 396 lanpostu egonkortzeko prozesua baliogabetu izanari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00164. Galdera, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 62.2 artikulua betetzeari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (10. or.).

- 11-24/POR-00165. Galdera, Sodenaren desinbertsio-operazioei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00166. Galdera, jakiteko ea zer dela-eta ez diren Nafarroara heltzen teknologiako inbertsio pribatu handiak eta berritzaileak. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00167. Galdera, Nafarroarentzako ikus-entzunezko edukiak biltzeko proiektua abian jartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00168. Galdera, 2023-2024 ikasturteko nazioarteko mugikortasunerako laguntza osagarriari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00169. Galdera, Trantsizio Energetikoaren Agentzia arautzen duen foru-lege proiektuari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00170. Galdera, Gero eta aldeko gehiago jardunaldietan Euskaltzaleen Topaguneak euskararen sustapenari buruz aurkeztutako lanaren balorazioari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00171. Galdera, azken bost urteotako itunei eusteari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00172. Galdera, trafiko arloko eskumenak eskualdatze aldera Espainiako Gobernuarekin Foruaren Hobekuntza aldatzeko akordioari buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00173. Galdera, Nafarroako osasun-zentro guztietan fisioterapeutak egoteari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00174. Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen aplikazioari. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00175. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obren amortizazioari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).
- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).
- PER20240011. Deialdia, Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko (19. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00003. Foru-lege proiektua, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SL-ri mailegu bat emateko Sunsundegui SA-ri

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2024ko apirilaren 19an hartutako Erabakiaren bidez, foru-lege proiektu bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari. Horren bidez baimena ematen zaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SL-ri mailegu bat emateko Sunsundegui SA-ri.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA

1. Aipatu foru-lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SL-ri mailegu bat emateko Sunsundegui SA-ri

ZIOEN AZALPENA

Nafarroaren Garapen Sozietatea SL sozietate publikoak berriazko baimena eskatu dio Parlamentuari zenbait mailegu-eragiketa formalizatzeko Sunsundegui SA-rekin.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82.ter artikulua-ren 2. apartatua –maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legeak emandako testuan–, Parlamentuaren berriazko baimena eskatzen da edozein pertsona fisiko edo juridiko maileguren onuradun izateko, zenbatekoa Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko 5etik gorakoa denean. Gehieneko arrisku bizia entitate emailearen arabera izanen da, hau da, maileguak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren menpeko entitateek emanak diren.

2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 13ko 2/2024 Foru Legeak, 24.5 artikuluan, 135.000.000 eurotan ezartzen du enpresa-erakunde publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek emandako maileguren gehieneko arrisku bizia, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82.ter artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zenbateko horren % 5ari dagokion kopurua 6.750.000 euro dira.

Nafarroaren Garapen Sozietatea SL-k 6.400.000 euroko mailegua emana dio Sunsundegui SA-ri, eta 2024an beste mailegu bat ematea aurreikusten du, 6.000.000 eurokoa gehienez. Beraz, gainditu egingen litzateke Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007

Foru Legearen 82.ter artikuluko 2. apartatuan ezarritako muga. Horregatik, bidezkoa da artikuluko horretan aurreikusitako baimena ematea.

Artikulu bakarra. Mailegua baimentzea.

Baimena ematen zaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri gehienez ere 6.000.000 milioi euro

arteko mailegu bat emateko, 2024an (eragiketa bakarrean edo batzuetan), Sunsundegui SA-ri.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00155. Galdera, Kultur Mezenasgoaren Foru Legea berrikusi eta gaurkotzeari buruzkoa

ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Kultur Mezenasgoaren Foru Legea berrikusi eta gaurkotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Ceriok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo kontseilari Rebeca Esnaola Bermejok Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legea 2014ko maiatzaren 16an onetsi zen, eta 2015ean izan zuen eragina lehenbizikoz. Hamar urte eta gero, zaharkiturik geratu dira legearen zenbait alderdi, eta beste autonomia-erkidego batzuetan hobetu egin dute araua.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariari galdetzen diogu ea departamentuak kultur mezenasgoari buruzko foru-legea berrikusteko eta gaurkotzeko asmorik duen.

Iruñean, 2024ko apirilaren 17an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/POR-00156. Galdera, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatu-ko Behatokiaren Osoko Bilkura bereziaren ondorioei buruzkoa

MARÍA ARANZASU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren Osoko Bilkura bereziaren ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Estatu-auzia da –horrenbestez, administrazio publiko guztiei eragiten dien auzia da– emakumeen aurkako indarkeria-mota oro amaiaztea. Joan den apirilaren 16an, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren osoko bilkura berezia egin zen, Pedro Sánchez buru zela.

Zer ondorio nagusi atera zen bilkura horretan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 17an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

11-24/POR-00157. Galdera, Nafarroako kulturaren sektorean Adimen Artifizialaren erabilerari buruzko erregelamendu bat ezartzeari buruzkoa

ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Nafarroako kulturaren sektorean Adimen Artifizialaren erabilerari buruzko erregelamendu bat ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo-ko kontseilari Rebeca Esnaola Bermejok Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan zen martxoaren 13an, Europako Parlamentuak adimen artifizialari buruzko lehenbiziko legea onetsi zuen, Europar Batasunak arlo horretan lehiakorra izaten jarraitzeko xedez. Halatan, lege horrek adimen artifizialarekin lotutako praktikak arautzen ditu.

Kultura Departamentuak gogoan al dauka Nafarroako kultur sektorean adimen artifizialaren erabilera arautzeko erregelamendurik ezartzea?

Iruñean, 2024ko apirilaren 17an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Ceriok,

11-24/POR-00158. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean ama-esneko banku bat sortzeari buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean ama-esneko banku bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitatean ama-esneko banku bat sortzeko lanean ari al da Osasun Departamentua?

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

11-24/POR-00159. Galdera, Nafarroan espezialitaterik gabeko sendagileak kontratatzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroan espezialitaterik gabeko sendagileak kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontseilariak nola azaltzen du Nafarroan, egun, espezialitaterik gabeko 12 sendagile kontratatuta egotea?

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/POR-00160. Galdera, jakiteko ea Gobernuak zer neurri hartuko duen Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitazioan beste behin izandako atzerapena dela-eta

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, jakiteko ea Gobernuak zer neurri hartuko duen Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitazioan beste behin izandako atzerapena dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Canasa sozietate publikoak eta Gobernu zentralak finantzaketaren arloan akordiorik ez izateak eragiten dituen zalantzak ikusita, Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitazioan beste behin izandako atzerapena dela-eta?

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00161. Galdera, Gobernuaren eledunak EH Bilduri buruz egindako adierazpenei buruzkoa, ETA banda terroristatzat hartzen ez duela-eta

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Gobernuaren eledunak EH Bilduri buruz egindako adierazpenei buruzkoa, ETA banda terroristatzat hartzen ez duela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurrekontuetarako bere kide EH Bilduk ETA banda terroristatzat hartzen duela-eta galdetu ziotenean, Gobernuko eledun López andreak adierazi zuen ez dutela "balorazio politikorik egiten, hain gutxi subjektiboagoak diren auziez". Lehendakaria zaren horrek, adierazpen horiekin bat egiten al duzu?

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-24/POR-00162. Galdera, jakiteko ea zer zuzentze-neurri hartuko diren, prebentzio-neurriez gain, Nafarroan herritarren segurtasunik eza igo dela ikusita

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, jakiteko ea zer zuzentze-neurri hartuko diren, prebentzio-neurriez gain, Nafarroan herritarren segurtasunik eza igo dela ikusita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen eledun María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengo-etan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan herritarren segurtasunik eza neurri-gabe igo baita, Gobernuak zer neurri zuzentzaile hartuko du epe motzean, neurri prebentiboez gain?

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00163. Galdera, Nafarroako Gobernuko administrarien 396 lanpostu egonkortzeko prozesua baliogabetu izanari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko administrarien 396 lanpostu egonkortzeko prozesua baliogabetu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko astean jakin genuen baliogabetu egin dela Nafarroako Gobernuko administrarien 396 lanpostu egonkortzeko prozesua.

Departamentuak erantzukizunik hartuko al du bere gain, egoera horrek langile horien egoeran izanen dituen ondorio negatiboak direla-eta?

Iruñean, 2024ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-24/POR-00164. Galdera, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 62.2 artikulua betetzeari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 62.2 artikulua betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak apirilaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea indarrean dagoenetik, ez da betetzen ari 62.2 artikuluan ezarritakoa; hauxe dio: "bereziki, debekaturik dago markak, patente edo ereduak edo jatorri zehatz bat aipatzea."

Administrazioaren arduradun nagusia den aldetik, zer kontrol egiten du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/POR-00165. Galdera, Sodenaren desinbertsio-operazioei buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Sodenaren desinbertsio-operazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

sean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujok Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela egun batzuk jakin genuen Jofemar enpresan duen partaidetzaren bi herenen desinbertsioa egin duela Sodenak. Inbertsioak eta desinbertsioak ohikoak dira Sodenaren moduko enpresetan; izan ere, hori da bere helburu instituzionala bat.

Hori dela-eta, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko kontseilariari honako hau galdetzen diogu:

Zenbat desinbertsio egin du sozietate publiko horrek azken urteotan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

11-24/POR-00166. Galdera, jakiteko ea zer dela-eta ez diren Nafarroara heltzen teknologiako inbertsio pribatu handiak eta berritzaileak

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, jakiteko ea zer dela-eta ez diren Nafarroara heltzen teknologiako inbertsio pribatu handiak eta berritzaileak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Teknologiako inbertsio pribatu handiak eta berritzaileak zergatik ez dira Nafarroara heltzen eta zergatik instalatzen dira beste autonomia-erki-dego batzuetan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/POR-00167. Galdera, Nafarroarentzako ikus-entzunezko edukiak biltzeko proiektua abian jartzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroarentzako ikus-entzunezko edukiak biltzeko proiektua abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamariquek honako ahozko galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan:

Gobernuak zer urrats egingen du Nafarroarako ikus-entzunezkoen edukiak biltzeko proiektua aurrera ateratzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/POR-00168. Galdera, 2023-2024 ikasturteko nazioarteko mugikortasunerako laguntza osagarriari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, 2023-2024 ikasturteko nazioarteko mugikortasunerako laguntza osagarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Dominguesek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak 2024ko apirilaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Apirilaren 11ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean "Nazioarteko mugikortasunerako laguntza osagarriak 2023-2024 ikasturtean" deialdia argitaratu zen, Unibertsitateko zuzendari nagusiak emana.

Zer berritasun dakar aurtengo deialdiak?

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-24/POR-00169. Galdera, Trantsizio Energetikoaren Agentzia arautzen duen foru-lege proiektuari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Trantsizio Energetikoaren Agentzia arautzen duen foru-lege proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea 2022ko apirilaren 1eko NAOn argitaratu zen. Lehen xedapen gehigarrian, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen du:

"Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabete epean, Nafarroako Gobernuak foru-lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia, foru sektore publiko instituzionalean sartua, arautzekoa. Bertan zehaztuko dira, besteak beste, haren nortasun juridikoa, entitate hori eratuz erdietsi nahi diren helburuak, eta esleitzen zaizkion eginkizunak".

Bi urte luze joan dira legea argitaratu zenetik, eta Gobernuak ez du xedapen gehigarrian ezarritakoa bete:

Nafarroako Gobernuak noiz igorriko du Nafarroako Parlamentura Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzeko lege-proiektua?

Iruñean, 2024ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-24/POR-00170. Galdera, *Gero eta aldeko gehiago* jardunaldietan Euskaltzaleen Topaguneak euskararen sustapenari buruz aurkeztutako lanaren balorazioari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, *Gero eta aldeko gehiago* jardunaldietan Euskaltzaleen Topaguneak euskararen sustapenari buruz aurkeztutako lanaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, bigarren lehendakariorde eta Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak apirilaren 25eko Osoko Bilkuran (osteguna) erantzun dezan:

Joan den astean, Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, *Gero eta aldeko gehiago* jardunaldiak egin ziren Iruñean. Bertan, Topaguneak euskararen sustapena dela-eta egindako lana aurkeztu zuen, non besteak beste ezartzen baita bizikidetzaren aldeko apustua egitea dela euskara sustatzea.

Hori guztia dela eta, galdera hau aurkeztu dugu:

Zure departamentuak zer balorazio egiten du lan horren ardatzak eta ondorioak direla-eta?

Iruñean, 2024ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00171. Galdera, azken bost urteotako itunei eusteari buruzkoa*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, azken bost urteotako itunei eusteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari:

Chivite andrea: Azken bost urteotako itunei eustsiko al die Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00172. Galdera, trafiko arloko eskumenak eskualdatze aldera Espainiako Gobernuarekin Foruaren Hobekuntza aldatzeko akordioari buruzkoa*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, trafiko arloko eskumenak eskualdatze aldera Espainiako Gobernuarekin Foruaren Hobekuntza aldatzeko akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2024ko apirilaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Espainiako Gobernuarekiko akordioa, trafiko arloko eskumenak eskualdatze aldera Foruaren Hobekuntza aldatzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

11-24/POR-00173. Galdera, Nafarroako osasun-zentro guztietan fisioterapeutak egoteari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako osasun-zentro guztietan fisioterapeutak egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noizko aurreikusten duzu egotea fisioterapeutak Nafarroako osasun-etxe guztietan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00174. Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen aplikazioari

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak,

Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollok 2024ko apirilaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei lehenbiziko errekonozimenduak egin baititu Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak,

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen aplikazioaz?

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/POR-00175. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obren amortizazioari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obren amortizazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure Gobernuak zer jarrera izanen du, ureztatzailerei dagokien partean, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obren epeei eta amortizazio-zenbatekoei dagokienez?

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko maiatzaren 9ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko maiatzaren 9ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

PER20240011. Deialdia, Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak deialdi-proposamen bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak, D mailakoak eta, horietako bi, euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Deialdiaren xedea da Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoan dauden lanpostu hutsak behin betiko betetzea. Espedientean Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Juridikoek eta Kontu-hartzailetzak egindako txostena ere jasotzen da.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren oinarriak; eta espedientea abiatzeko agindua ematea.

2. Agintzea deialdia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Deialdia, Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

Honako hauek dira deialdi honen oinarriak:

1. oinarria. Xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da oposizio-lehiaketa bidez betetzea Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak.

1.2. Zortzi lanpostu horiek honako txanda hauetan banatuko dira:

– Zazpi lanpostu, txanda irekian (bi, euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak).

– Lanpostu bat, 100eko 33ko edo hortik gorako desgaitasun aitortua duten pertsonentzako erreserba-txandan.

Desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-txandako lanpostu hutsari dagokionez, bete gabe gelditzen bada hautaprobak gainditzeko ezartzen den gutxieneko puntuazioa izangaiek ez lortzeagatik, txanda irekiko lanpostu hutsei gehituko zaie.

Bestalde, baldin eta desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-txandan probak gainditzen dituzten izangaiek gehiago baldin balira hutsik dauden lanpostuak baino, txanda horretan lanposturik eskuratu gabe suertatzen diren gainditzailleek aukera izanen lukete txanda irekiko lanpostu hutsak eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehiari eta eskuratutako amaierako puntuazioaren arabera.

1.3. Oposizio-lehiaketa egingen da Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutu indardunean ezarritakoari heldurik eta, osagarri gisa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileria-aren Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak eta hori garatu eta betearazteko Sarre-ara Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuak ezarritakoari.

1.4. Deialdi hau dela medio izendaturik suertzen diren izangaiek Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, zehazki, gelazainen kidegokoentzat ezartzen diren eginkizun, eskubide eta betebeharrak izanen dituzte. Haien eginkizunak izanen dira orokortasunez ezartzen direnak Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8.6. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduko 21. artikuluan. Zehazki, honako hauek: Legebiltzarreko organoen lagungarri aritzea, Parlamentuaren barruan zaintza- eta babes-zereginak betetzea, dokumentuen erreproduktzioa, garraioa, banaketa eta horien gisakoak, bai eta Legebiltzarreko zerbitzu desberdinen lagungarri modura eskatzen zaien edozein laguntza-lanetan haien mailari dagozkionak ere: liburutegia, mantentze-lanak, zerbitzu orokorrak edo beste edozein, bai eta telefonozko arreta eta antzekoak ere.

Gelazain-lanpostuak Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorrei atxikirik egonen dira.

1.5. Izendapenak Nafarroako Parlamentuaren nominako eta plantillako funtzionarioaren izaera emanen die hautatuei, indarreko xedapenetan adierazitako eskubide eta betebeharrak guztiekin.

1.6. Lanpostuak D mailakoak dira, eta maila horri dagozkion lansariak dituzte, bai eta Nafarroako Parlamentuko plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak ere.

1.7. Izendatua suertatzen den funtzionarioa Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliatua izanen da eta bertan alta emanen zaio, araubide horrek ezartzen duen babesaren pean, salbu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan eta horren osagarri diren xedapenetan aipatzen den eskubide pasiboaren eta osasun- eta gizarte-laguntzaren araubidean jada afiliatuta badago, ezen kasu horretan aukera izanen du araubide horretan segitzeko edo Gizarte Segurantzaz afiliatzeko.

1.8. Lanaldia gauzatu da Nafarroako Parlamentuko langileentzat orokortasunez ezarritako ordutegi eta txandetan.

2. oinarria. Izangaiei betekizunak.

2.1. Prozedura honetan onartuak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskabide-aurkeztearen epea amaitzen den egunean eta lanpostu-betetzearen prozedurak irauten duen denbora guztian, harik eta lanpostuaz jabetzeko unera arte:

a) Espainiako nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasuneko kide den estatu batekoa, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berre-

tsitakoak izanik langile-zirkulazio askea aurreikus-ten duten nazioarteko itunen aplikazio-esparruan dagoen estatu batekoa.

Halaber parte hartzen ahalko dute espainiarren eta Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetako herritarren edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatu-estatuetako herritarren ezkontideek ere, baldin eta ez badaude zuzenbidez bereizita, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez daudenean, hogeita bat urte baino adin txikiagoak badira, edo haien kontura bizi diren adin horretatik gorakoak.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina ez gainditzea.

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eskola-ziurtagiria, DBHko graduatuaren titulua, eskola-graduatuaren titulua, Oinarriko Lanbide Heziketaren titulua edo lehen graduoko Lanbide Heziketaren titulua edukitzea, edo horien baliokide deklaratu den bat, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

Atzerrian lortutako tituluen kasuan, aipatutako data horretan eduki beharko da horien homologazioaren frogagiri ofiziala edo, kasua bada, baliokidetasun-ziurtagiri ofiziala. Betekizun hori ez zaie aplikatuko izangaiei, baldin eta beren lanbide-kualifikazioaren aitortpen ofiziala lortu badute, lanbide arautuen esparruan, Europar Batasuneko zuzenbideak xedatuaren babesean.

d) Kasuko eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa edukitzea.

e) Kasuko eginkizun publikoetan aritzeko ezgaituta edo etendurapean ez egotea, administrazio publikoren baten zerbitzuetik bereizita ez egotea, eta diziplinako kaleratze bidez langabetuta ere ez egotea.

f) Euskarako B2 hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetara ere aurkeztu nahi dutenen kasuan, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera maila hori frogatzen duten titulu edo ziurtagirietako bat edukitzea, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen 210/2010 Ebazpenean, irailaren 13koan, zerrendaturik daudenetakoa (117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2010eko irailaren 27koa), edo ofizialki baliokidetzat aitorturiko titulazioa edukitzea, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria edukitzea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

2.2. Aurreko baldintzak bete beharko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, eta postuaren jabetza hartzen den arte.

2.3. Izangaiek deialdi honen oinarrietan zehazten den unean beharko dute frogatu aurreko betekizun horiek betetzen dituztela.

3. oinarria. Parte hartzeko eskaerak, dokumentazioa eta azterketa-eskubideak.

3.1. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek telematikoki aurkeztu beharko dute beren eskaera, Internetez, Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa eskuragarri egonen den eskabide bat erabiliz (<https://parlamentodenavarra.es> webguneko Administrazio-izapideak / Langile-deialdiertarako eskabidea atalean).

3.2. Eskabideari nahitaez erantsi beharko zaio parte hartzeko eskaera, I. eranskineko ereduaren arabera, eta interesdunentzat eskuragarri egonen dena Nafarroako Parlamentuaren www.parlamentodenavarra.es webguneko "Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2024ko ekitaldia" atalean.

3.3. Parte hartzeko eskaeran, izangaiek adierazi beharko dute ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituztela eskaera-aurrezpenetarako zehaztutako epea amaitzen den egunean.

3.4. Parte hartzeko eskaerarekin batera, izangaiek Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo beste identifikazio-agiri ofizial baten kopia aurkeztu beharko dute.

3.5. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonak beren identitatea eta nazionalitatea frogatzen dituzten agirien fotokopiak aurkeztu beharko dituzte, bai eta, kasua bada, 2.1.a) apartatuan ezarritako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzak betetzen direla frogatzen dutenena ere. Halaber aurkeztu beharko dute zinpeko edo hitzemandeko adierazpena, beren jatorrizko herrialdean funtzio publikorako sarbidea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zigor penalik jaso ez izatearena.

3.6. Desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-txanda baliatu nahi duten pertsonak behartuta egonen dira beren parte-hartze eskaerarekin batera aurkeztera desgaitasuna duen pertsonaren legezko izaera dutelako frogagiria, organo eskudun batek jaulkitako agiriaren kopia baten bitartezkoa. Halaber, beharrezkoa izanez gero, zilegi izanen dute denbora- edo baliabide-egokitzapenak eskatzea oposizioeko probak egiteko. Kasu horretan, eskaeran adierazi beharko dute hori, eta aparteko orri batean azaldu beharko dute zer desgaitasun daukaten eta zer egokitzapen eskatzen duten.

3.7. Euskarako B2 hizkuntza-eskakizuneko lanpostuetara ere aurkeztu nahi duten izangaiek

horren berri eman beharko dute eskaeran, eta tituluaren kopia erantsi beharko diote eskaerari.

3.8. Azterketarako eta espediente-formalizazio eskubideak 15,60 eurokoak dira. Hartara, transferentzia bat egiten da Nafarroako Parlamentuaren ES47 3008 0218 843490314824 banku-kontura (Nafarroako Rural Kutxa), azalpenean honako hau jarrita: "Parlamentuko gelazainen deialdiko azterketa-eskubideak" aipamena eta bidaltzailearen izen-abizenak. Diru-sarreraren frogagiria deialdian parte hartzeko eskaerari atxikiko zaio.

Azterketarako eta espediente-formalizazioko eskubideak ordaindu ezean, izangaia deialditik at geldituko da. Tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskaera epe eta modu egokian aurkeztu beharra.

Azterketa-eskubideak ordaintzetik salbuetsita egonen dira honako pertsona hauek:

a) 100eko 33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua duten pertsonak. Haiek desgaitasuna duen pertsonaren legezko izaera dutelako frogagiria aurkeztu beharko dute.

b) Deialdi hau argitaratzen den egunaren aurretik hilabetez, gutxienez ere, langabetu gisa inskribaturik daramaten pertsonak, baldin eta inskribaturik egon diren bitartean ez badute enplegu egokirako inolako eskaintzarik errefusatu, eta horrez gain lanbide-sustapen, -prestakuntza edo -birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere ez badiote arrazoi justifikatuarekin uko egin, eta, horrez gain, ez badute lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko diru-sarrerarik hileroko zenbaketan.

Honela frogatu beharko da aurreko b) apartatuan aurreikusitako salbuespena:

– Langabezia-egoera frogatuko da kasuko enplegu-bulegoak jaulkitako ziurtagiriaren bidez. Bertan, langabe gisa inskribatzearen data agertuko da, eta berariaz adieraziko da inskribatu-aldian ez dela errefusatu eskaintako enplegu egokirik, eta lanbide-sustapen, -prestakuntza edo -birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere ez zaiola uko egin, arrazoi justifikaturik egon bada izan ezik.

– Interesdunak erantzukizunpeko adierazpena eginez frogatuko du ez duela, hileroko zenbaketan, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko errentarik; horretarako, deialdi honen II. eranskineko ereduaren arabera agiria aurkeztuko du.

4. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

5. oinarria. Izangai-onarpena. Behin-behineko eta behin betiko zerrendak.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du Nafarroako Parlamentuko lehendakariak, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du. Zerrenda horretan, pertsona onartuen eta baztertuen izen-deiturak agertuko dira. Pertsona bazterturik ez badago, zilegi izanen da zuzenean onestea behin betiko zerrenda. Orobat argitaratuko da <https://parlamentodenavarra.es/eu> webgunean, “Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2024ko ekitaldia” atalean.

5.2. Behin-behineko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzinako hamar egun balioduneko epean, interesdunek zilegi izanen dute egoki josten dituzten erreklamazioak aurkeztea zerrenda horren aurka, bai eta zuzentzea ere, kasua bada, beraiek lehenago egindako balizko akatsak.

5.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzirik, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, zeina honako hauetan argitaratuko baita: Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta <https://parlamentodenavarra.es/eu> webgunearen “Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2024ko ekitaldia” atalean.

5.4. Ez da azterketarako eta espediente-formalizatorako eskubiderik itzuliko, baldin eta baztertua izatearen arrazoia izangaiari egoztekoa bada.

5.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi horretan agertzen direnei aitortu egiten zaizkien deialdiko prozeduran eskatutako baldintzak bete egiten dituztela. Hautatze-prozedura gaindituz gero aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen baldin bada interesdunak ez duela betekizunen bat betetzen, pertsona horrek galdu egingen du prozedura honetan parte hartetik hel lekiokkeen eskubide oro, ezertan galarazi gabe faltsutasuneko jokabideagatik erator lekizkiokeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

6. oinarria. Kalifikazio-epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduna.

6.1. Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Ainhoa Unzu Garate andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakariordea.

Ordezkoa: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jauna, Nafarroako Parlamentuko bigarren lehendakariordea.

Epaimahaikidea: Sergio Zozaya Garralda jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako burua.

Ordezkoa: Francisca Palma Romero andrea, Nafarroako Parlamentuko administrazio-kudeaketako erdi-mailako teknikaria.

Epaimahaikidea: Laura Vidán Astiz andrea, Nafarroako Parlamentuko kontu-hartzailea.

Ordezkoa: Mikel Iriarte Cilveti jauna, Nafarroako Parlamentuko Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

Epaimahaikidea: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak hautatuko du.

Ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak hautatuko du.

Idazkaria: Silvia Doménech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legegari nagusia.

Ordezkoa: Miguel Ángel Laurenz Itoiz jauna, Nafarroako Parlamentuko legegaria.

6.2. Baldin eta, lege ezarritako abstentzio- eta errefus-arrazoiak aplikatuz, epaimahaiaren osaran inolako aldaketarik balego, izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko litzateke aldaketa hori.

6.3. Kalifikazio-epaimahaia hautapoben hasiera baino lehenago eratu beharko da. Hautakizun dirauten epaimahaikideak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzearekin hautatuko dira.

6.4. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, gutxienez bere kideen gehiengo osoa ez bada bertaratu. Halaber, epaimahaiaren eratzea eta jarduna baliodunak izateko, beharrezkoa izanen da epaimahaiburua eta idazkaria bertaratura egon daitezela; edo, kasua bada, haien ordezkoak.

6.5. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeaz eta aplikatzeaz sor daitezkeen ebazkizun guztiak.

6.6. Kalifikazio-epaimahaiko kideak esku hartetik abstenitu egin beharko dira eta organo dei-

egileari horren berri eman beharko diote, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean aipatzen diren abstentzio-kausetakoren bat beraiei aplikatzeko modukoa bada. Halaber, izangaiek zilegi izanen dute aipatu kausetakoren bat aplikatzekoa zaien epaimahaikideak errekusatzea.

6.7. Epaimahaiak aholkulari espezialistak beregana ditzake proba guztietarako nahiz probaren baterako. Aholkulari horiek lankidetzan arituko dira epaimahaiarekin, eta beren espezialitate teknikoetan jardutera mugatuko dira.

7. oinarria. Oposizio-lehiaketaren nondik norakoa.

Oposizio-lehiaketak bi fase izanen ditu: lehenik, oposizioaldia izanen da; eta ondoren, lehiaketaldia.

7.1. Oposizioaldia.

Oposizioaldia 2024ko irailetik aurrera hasiko da, Nafarroako Parlamentuaren webgunean gutxienez ere hamabost egun natural lehenago iragarriko diren tokian, egunean eta orduan.

Oposizioaldia proba bakarraz osatuta egonen da, zeinak bi ariketa izanen baititu, multzo berean eginen direnak, bata bestearen ondoren, behar den unean iragarriko den egun batean.

a) Lehen ariketa: Proba honetan idatziz erantzun beharko zaio test-moduko galderaz osaturiko galdetegi bati, non galdera bakoitzak aukeran lau erantzun eskainiko baititu, zeinetatik bakarra izanen baita zuzena, mintzamenaren, ortografiaren, zenbakiekiko ahalmenaren eta hautemate-iaiotasunaren alorretako gaitasunei buruzkoak. Erantzun oker bakoitza erantzun zuzen baten balioaren herenarekin zigortuko da.

Probaren gehieneko iraupena proba hasi baino lehen zehaztuko du epaimahaiak.

Proba egiten den bitartean ezin izanen da testurik erabili, ez eta hizteirik edo bestelako materialik ere. Tinta urdineko nahiz beltzeko bolaluma bat soilik, punta gogorduna, erabili ahalko da.

b) Bigarren ariketa: Proba honetan idatziz erantzun beharko zaio test-moduko galderaz osaturiko galdetegi bati, non galdera bakoitzak aukeran lau erantzun eskainiko baititu, zeinetatik bakarra izanen baita zuzena, deialdi honetako V. eranskinetako gaitegiari buruzkoak. Erantzun oker bakoitza erantzun zuzen baten balioaren herenarekin zigortuko da.

7.1.1. Proben puntuazioak bi hamarrenera birliduta adieraziko dira. Oposizioaldiko proban

gehienez ere 70,00 puntu lortu ahalko dira, honela banatuta:

a) Lehen ariketa: 35,00 puntu. Bazterturik geldituko dira ariketari esleitutako puntuazioaren erdia, gutxienez ere, lortzen ez duten pertsonak.

b) Bigarren ariketa: 35,00 puntu. Bazterturik geldituko dira ariketari esleitutako puntuazioaren erdia, gutxienez ere, lortzen ez duten pertsonak.

Ariketa horietako bakoitza baztergarria izanen da; hori dela-eta, proba gaudituko duten pertsona bakarrak dira aipatu ariketetako bakoitza gaudituzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa lortzen dutenak.

7.1.2. Oposizioako probetarako hots-egitea bakarra izanen da, eta izangaiek bertaratu beharko dira berekin eramanda Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea, gidabaimena edo epaimahaiaren iritziz nahikoa den bestelako identifikazio-agiri bat. Oposiziotik bazterturik geldituko dira iragarritako egun, ordu eta tokian agertzen ez diren izangaiek, bai eta aipatu agirietakoren baten bidez identifikatzen ez direnak ere.

Antolamendu-arrazoiengatik, probetarako hots-egitea egun eta ordu desberdinetan gauzatu ahal-ko da, izangai-kopurua aintzat harturik. Horretarako, gutxienez ere 48 orduko aurrendenborarekin eta deialdi honen 10. oinarrian ezarritako moduan, ariketa egitera hots egiten zaien izangaien zerrenda argitaratuko da, bertan hots-egitearen tokia, eguna eta ordua ere zehaztuta. Kasu horretan, epaimahaiak ariketa desberdin baina antzeko zailtasunekoak prestatuko ditu.

7.1.3. Oposizioako probak egiteko, denbora- eta baliabide-egokitzapen posible eta beharrezkoak ezarriko dira aitorturiko desgaitasunen bat izanik beren parte-hartze eskabidean horiek eskatu dituzten izangaientzat.

7.1.4. Proba kalifikatu ostean, epaimahaiak Nafarroako Parlamentuaren webgunean argitaratuko du izangaiek lortutako puntuazioen zerrenda, eta bost egun balioduneko epea abiaraziko du, interesdunek egoki deritzotena alegatu ahal izatekoa.

7.2. Lehiaketaldia.

7.2.1. Lehiaketaldia oposizioaldiaren ondotik gauzatuko da.

Txanda irekiari dagokionez, 7.1.1. oinarrian ezarritakoa gorabehera, lehiaketaldira 100 izangai heldu ahalko dira gehienez ere; hortaz, aipatu txandan hori baino gehiagokoa izanen balitz eskaturiko gutxieneko puntuazioa lortu duten izangaien kopurua, kalifikaziorik onenak lortu dituztenak soilik pasatuko dira. Ehungarren postuan kalifikazio

bereko izangaiak baleude, kalifikazio bera izanik posizio horretan dauden izangai guztiak pasatuko liriteke. Txanda horretako gainontzeko izangaiak hautaprosesutik bazterturik geldituko dira.

Lehiaketaldia ez da baztertua izanen, eta haren balorazioa gehienez ere 30,00 puntukoa izanen da. Merezimenduen balorazioari dagokionez, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunera arte lortutakoak bakarrik hartuko dira kontuan, eta ez egun horren ondoren lortutakoak.

7.2.2. Lehiaketaldian, oposizioaldia gainditu duten izangaiak alegatu eta justifikaturiko merezimenduak kalifikaturiko dira, deialdi honen IV. eranskineko baremoari jarraikiz.

Lehiaketaldiko baloraziorako, oposizioaldia gainditu duten izangaiak soilik aurkeztu beharko dituzte merezimenduak, 7.2.1. apartatuan ezartzen denari jarraikiz. Horretarako, epaimahaiak iragarki bat argitaratuko du Parlamentuaren webgunean, zeinaren bidez eskatuko baitie hamar egun balioduneko epean aurkez dezaten III. eranskineko ereduaren arabera alegaturiko merezimenduen zerrenda. Epaimahaiak balorazioa egin ahal izan dezan, nahitaezkoa izanen da dokumentu horri gehitzea merezimendu bakoitzari buruzko frogadokumentazioa, zeina IV. eranskinean adierazten denaren arabera izan beharko baita.

Agiriek baremoaren aplikaziorako beharrezkoa den informazio guztia jaso beharko dute. Ez da kontuan hartuko frogatu gabeko merezimendurik, ez eta baremoan jasota ez dagoenik ere. Epaimahaiak zilegi izanen du edozein unetan argibideak eta datu osagarriak eskatzea lehiatzaileek alegaturiko merezimenduei buruz.

Epaimahaiak modu arrazoituan baloratuko ditu baremoko atal bakoitzetik bere ustez izangai bakoitzak badituen merezimenduak, eta ezin izanen du ezein kasutan aintzat hartu alegatu ez den edo agiri bidez frogatu ez den merezimendurik. Era berean, ez du zilegi izanen atal bakoitzagatik puntuazio handiagorik ematea baremoan aipatzen dena baino.

Aurkezturiko merezimenduen frogagiriak aztertzetik ondorioztatuko balitz izangaietakoren batek ez daukala halako merezimendurik, deskontatu egingen da aipatu merezimenduei emandako puntuazioa, ezertan galarazi gabe izangai hari faltsutasunagatik erator lekizkiokeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

7.2.3. Merezimenduen balorazioa amaituta, epaimahaiak izangai bakoitzaren merezimenduen

balorazioaren emaitza jasotzen duten bi zerrenda argitaratuko ditu Parlamentuaren webgunean, eta izangaiak bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko. Lehenbiziko zerrendan izangai guztiak jasoko dira, lehiaketaldian lortu duten puntuazioa adierazita. Bigarren zerrendan B2 euskara-eskakizuna duten lanpostuetara ere aurkezten diren pertsonak bakarrik agertuko dira, eta lehenbiziko zerrendarekiko alde bakarra izanen da merezimenduzat jasoko duela euskararen jakitea C1 maila izateari buruzko balorazioa bakarrik, zeren eta B2 maila ezinbesteko baldintza baita lanpostu horietara aurkezteko.

7.2.4. Izendapenerako proposatzen diren izangaiak merezimendu horien frogagiriaren jatorrizkoak edo kopia kautotutak aurkeztu beharko dituzte, 8.3 apartatuan adierazitako gainerako dokumentuekin batera. Dokumentu horiek ez badira zuzenak, edo aurretiaz aurkeztu eta lehiaketaldian baloratu direnekin ez badatoz bat, kasuko izangaiaren aldeko izendapen-proposamena automatikoki indargabertuta geratuko da, eta horrek berekin ekarriko du izangai deialditik kanporatua izatea.

8. oinarria. Probak gainditzen dituzten pertsonen zerrenda, izendapen-proposamena eta dokumentu-aurkezpena.

8.1. Oposizioaldia eta lehiaketaldia bukatutakotan, epaimahaiak gaintzaileen zerrenda argitaratuko du Nafarroako Parlamentuaren webgunean. Izangaiak oposizio-lehiaketan lortu dituzten kalifikazioak adieraziko dira zerrenda horretan, txandaka banatuak eta lortutako puntuazioaren hurrenkeran. Bigarren gaintzaile-zerrenda bat ere argitaratuko du, baina horretan agertuko dira, soilik, euskarako B2 hizkuntza-eskakizuneko lanpostuetarako aurkeztu diren pertsonak eta horiek lortu dituzten kalifikazioak.

Oposizio-lehiaketaren guztizko puntuazioan berdinketak gertatuz gero, oposizioaldian puntuaziorik handiena eskuratu dutenen alde ebatziko da. Berdinketak hala ere baldin badirau, oposizioaldiaren bigarren ariketan puntuaziorik handiena lortu duen izangaiaren alde ebatziko da. Eta berdinketak bere horretan segitzen badu, propio deituriko jendaurreko ekitaldian eginiko zozketa bidez ebatziko da.

Bi zerrendetan dauden izangaiak, baldin eta bi horietan lortu badute deitutako lanpostu-kopuruan sartzea, jakinarazi egin beharko diote epaimahaiari zein nahiago duten, hizkuntza-eskakizundun lanpostua ala hizkuntza-eskakizunik gabekoa, izendapenerako proposatuak izateko.

8.2. Epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igorriko dio deitutako lanpostu-kopuruan

sartu diren izangai gainditzailen aldeko izendapen-proposamena, oposizio-lehiaketako aktekin eta gainerako dokumentazioarekin batera. Proposamen hori Parlamentuaren webgunean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.3. Izendapen-proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epearen barrenean, proposatuak izan diren izangaiek ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dizkiote Nafarroako Parlamentuari, guztiguztiak jatorrizkoan eta fotokopian, konpultsatuak eta bueltatuak izateko:

a) Nortasun Agiri Nazionala edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokide bat.

b) Deialdiaren 2.1.c) apartatuan eskatzen den titulua, edo hori lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

c) Euskarako B2 hizkuntza-eskakizuna duen postu batera sartzekotan, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera ko maila hori frogatzen duen titulua edo ziurtagiria; hots, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen 210/2010 Ebazpenean, irailaren 13koan, zerrendaturik daudenetako bat (117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2010eko irailaren 27koa), edo baliokidetzat ofizialki aitorturiko titulua.

d) Desgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako txandako postura sartzekotan, desgaitasuna duen pertsonaren legezko izaeraren frogagiria, organo eskudunak jaulkitakoa.

e) Txostena, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalak jaulkitakoa, frogatzen duena interesdunak ez duela eritasun edo akats fisikorik, lanpostuaren berezko eginkizunetan aritzea eragozten dionik. Ofizios aurkeztua izanen da, horretarako osasun-azterketa egin ondoren.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaien kasuan, balorazio- eta orientazio-talde eskudunek ofizios emanen dute desgaitasun hori deialdiko lanpostuarekin bateragarria izateari buruzko frogagiria.

d) Zinpeko aitortpena, eginkizun publikoetarako ezgaitua edo etendurapean ez izatearena eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia ez izatearena.

g) Zin-egite edo hitzematea, Nafarroako foru araubidea errespetatzearena, Konstituzioari eta

legeei men egitearena eta karguari dagozkion eginkizunak zintzoki betetzearena.

h) Nafarroako administrazio publikoren bateko langile finko diren pertsonak, gainera, ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, frogatzen duena bai izaera hori bai beraien lehenagoko administrazio espediente pertsonalean ageri diren gainerako inguruabar eta aurrekari guztiak, postuan sartzeari, antzinasunari, mailari, egoera administratiboari eta abarri buruzkoak.

8.4. Behar adina justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, aipatu epearen barrenean arestiko agiriak aurkezten ez dituzten pertsonak ezin izanen dira izendatu, eta haien egintza guztiak deuseztaturik geldituko dira, ezertan galarazi gabe beren parte-hartze eskaeraren faltsutasuna dela-eta legokiekeen erantzukizuna.

8.5. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hutsune hori beteko du 8.1 apartatuak aipatzen duen gainditzaille-zerrendan zuzenean jarraian dagoen izangaiarekin, eta horrekiko prozedura izanen da aurreko apartatuek adierazten dutena.

9. oinarria. Izendapena.

9.1. Deialdi honen 8.3 apartatuan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu direnean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak funtzionario izendatuko ditu proposatuak izan diren izangaiak. Izendapena Nafarroako Parlamentuaren webgunean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

9.2. Izendapena jakinarazten denetik hilabete epean, izangaiek beren lanpostuen behin betiko jabetza hartu beharko dute, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren aurrean.

Ulertuko da ezen epe horretan lanpostuaz jabetzen ez den izangaiak uko egiten diela oposiziotik eratortzen diren eskubideei. Kasu horretan, lanpostua beteko da deialdi honetako 8. oinarrian aipatzen den gainditzaille-zerrendan hurrengo tokian dagoen izangaiarekin.

Izangaiaren batek lanpostuaren jabetza hartu eta borondatezko eszedentzia eskatuko balu Nafarroako Parlamentuan edo beste administrazio publiko batean funtzionario nahiz aldi baterako lan-kontratudun gisa zerbitzu ematen jarraitzeko, eszedentzia hori emateak ez du postuaren gainera inolako erreserbarik ekarriko, eta postua beteko du deialdi honetako 8. oinarrian aipaturiko gainditzaille-zerrendan hurrengo tokian dagoen pertsonak.

10. oinarria. Jarduketak argitaratzea.

Ezertan galarazi gabe Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bidez ofizialki argitaratu beharrekoak diren izapideak, probetara deitzeari eta kalifikazioei dagokienez epaimahaiak egindako jarduketei buruzko informazioa, bai eta interesdunentzat baliagarria den beste edozein informazio orokor ere, Nafarroako Parlamentuaren webguneko (<https://parlamentodenavarra.es/eu>) "Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2024ko ekitaldia" atalean argitaratuko da.

11. oinarria. Aldi baterako kontrataziorako izangai-zerrendak.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzurako langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamenduak xedatzen duenari jarraikiz, aldi baterako kontrataziorako honako izangai-zerrenda hauek egingen dira, hala hizkuntza-eskakizunik gabeko lanpostuetarako nola euskarako B2 hizkuntza-eskakizuneko lanpostuetarako, hautapen prozesuan parte hartu bai eta bertan posturik lortu ez duten pertsonekin:

1. Lehiaketaldira iritsi eta lanposturik gabeko gainditzaille suertatu diren pertsonen zerrenda, sarrera-hautaprozaturan lortutako guztizko puntuazioaren handitasunaren arabera ordenatua.

2. Oposizioaldiko probako bi ariketak gainditu bai baina lehiaketaldira iritsi ez diren izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren handitasunaren arabera ordenatua. Berdinketarik izanez gero, bigarren ariketan puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde ebatziko da. Horrela ere berdinketa mantendu egiten bada, zozketa bidez ebatziko da, zeina propio deituko den ekitaldi publiko batean egingen baita.

3. Oposizioaldiko probako bigarren ariketa soilik gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren handitasunaren arabera ordenatua. Emaiztan berdinketarik izanez gero, zozketa bidez ebatziko da, zeina propio deituko den ekitaldi publiko batean egingen baita.

4. Oposizioaldiko probako lehen ariketa bakarrik gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren handitasunaren arabera ordenatua. Emaiztan berdinketarik izanez gero, zozketa bidez ebatziko da, zeina propio deituko den ekitaldi publiko batean egingen baita.

12. oinarria. Aurkeztutako dokumentazioa.

12.1. Aurkeztutako dokumentazioa berreskuratzea zilegi izanzen dute izangaiak, berriaz eskatuz gero eta erreklamazio edo errekurtsorik jarri ez bada. Berreskuratze-eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahal da, aurretik beste hiru hilabete igaroak direnean izendapen-erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik.

12.2. Aurreko atalean ezarritako epea bukatzen bada dokumentazioa berreskuratzeko eskaerarik egin gabe, izangaiak agiriak berreskuratzeari uko egin diotela ulertuko da, horretarako eskubidea galduko dute eta agiriak suntsitu egingen dira.

13. oinarria. Errekurtsoak.

13.1. Deialdi honen, bere oinarrien eta berari buruz Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsioetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.

13.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak nahiz epaimahaiak deialdi hau aplikatuz erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka zilegi izanzen da gora jotzeko errekurtsoa aurkeztea Parlamentuko Mahaiari, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Parte hartzeko eskaera-eredua

1) Datu pertsonalak

Izen-abizenak: _____
Nortasun Agiri Nazionalaren, Atzerritarraren Identifikazio-zenbakiaren edo beste identifikazio-agiri ofizial baten zenbakia: _____ (fotokopia atxiki da)
Jaioteguna: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Probintzia: Posta-kodea: _____
Telefonoa(k): _____
Helbide elektronikoa: _____

2) 100eko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzako erreserbatxandako izangaiak

[] Desgaitasuna duen pertsona bat naizela, zeina eskaerarekin batera frogatzen baitut (honekin batera, desgaitasuna duen pertsonaren legezko izaeraren frogagiriaren kopia), eta nire burua 100eko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzako erreserbatxandako postura aurkeztu nahi dudala.

[] Oposizioaldiko ariketak egiteko, azaltzen den baliabide-egokitzapena eskatzen dudala, adierazitako arrazoiengatik. (Aparteko orri batean zehaztuko dira desgaitasunmota eta eskatutako egokitzapenak).

3) Euskarako hizkuntza-eskakizuna duten postuak

[] Euskarako B2 hizkuntza-eskakizundun lanpostuetarako deialdian ere parte hartu nahi dut. (Honekin batera, tituluaren fotokopia).

4) Azterketa egiteko eta espedientea formalizatzeko eskubideak

[] Azterketa egiteko eta espedientea formalizatzeko eskubideak ordaindu ditut. (Honekin batera, diru-sarreraren frogagiriaren kopia).

[] Tasa ordaintzetik salbuetsirik nago, honako arrazoi honengatik:

[] % 33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua duen pertsona izateagatik.

[] Langabezian egoteagatik deialdi honen argitaratze-egunaren aurreko hilabete bateko gutxieneko epean, deialdiaren 3.9.b) oinarrian azaldutako baldintzetan, eta hileroko zenbaketan lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko diru-sarrerarik ez edukitzeagatik (Enplegu Bulegoak jaulkitako ziurtagiria atxiki da, non jasotzen baitira langabetu-inskripzioaren data, bai eta berariazko azalpen bat ere, esaten duena inskribatu gisa emandako denboran ez zaiola uko egin eskaintako inolako lan egokiri, ezta lanbide-sustapen, -prestakuntza edo -birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik, bai eta erantzunkizunpeko adierazpen bat ere, II. eranskineko ereduaren arabera).

5) Halaber adierazten dut:

- Ez dudala karguan aritzea eragozten didan eritasunik edo akats fisiko edo psikikorik, eta xedapen indardunetan ezarritako ezintasunik ere ez dudala.
- Ez naizela diziplina-espeditate bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan, eta ez naizela ez desgaitua ez etenarazia izan eginkizun publikoetan jarduteko.
- Badauzkadala deialdian eskatzen diren tituluak, eta bertan parte hartzeko ezarrita dauden baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala eskabideak aurkezteko ezarritako epea bukatzen den egunean.
- Konpromisoa hartzen dudala, izendatua izanez gero, deialdiaren 8. oinarrian aipatzen diren agiriak epe ezarrian aurkezteko, bai eta nire izendapena jakinarazten denetik hilabeteko epean lanpostuaren jabetza hartzeko ere.

Honen bidez **ESKATZEN DUT** onartua izatea Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian, zeina _____ zenbakiko _____ eguneko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

_____ (e)n, 2024ko _____ aren _____ (e)(a)n.

(Sinadura)

Datu Pertsonalen Babeserako 2016/679 Europako Erregelamenduari (DPBE) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz, honako honen berri ematen dizugu, emandako datu pertsonalak direla-eta:

Arduraduna eta helburua: Nafarroako Parlamentuak tratatuko ditu izaera pertsonaleko datuak, eta "Giza Baliabideak" tratamendu-sisteman sartuko ditu, zeinaren xedea baita Nafarroako Parlamentuko giza baliabideen erregistratze eta kudeaketarako beharrezkoak diren datuak lortzea. Datu horiek erabiliko dira langile-hautaketako eta lanpostu-betetzeetako prozesuetan, langileen prestakuntzan, bateraezintasunen gaineko kontrolean, lan-arriskuen prebentzioan, alta- eta baja-zereginetan, eta Gizarte Segurantzari eta, kasua bada, mutualitateei, gizarte-aurreikuspeneko entitateei eta aseguru-enpresari eginiko komunikazioetan, bai eta kontrol presentzian ere.

Legitimazioa: Helburua oinarritzen da legezko betebeharraren baten betetzean eta Nafarroako Parlamentuaren ahal publikoen egikaritzean. Funts juridikoa honako hau du: DPBEren 6.1.e) artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an egindako bilkuran onetsia. (19. NPAO, 1991ko martxoaren 26koa).

Eskubideak: Orobat jakinarazten dizugu zure eskubidea dela Nafarroako Parlamentuari eskatzea zure datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta eraman ahal izatea, bai eta datu horien tratamendua mugatzea eta errefusatzea ere, bidezkoa denean, Nafarroako Parlamentuari eskaria eginez Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña helbidean edo posta elektronikoko dpd@parlamentodenavarra.es helbidean.

Datu-gordetzea: Datuak gordeko dira honako arauetan xedatutakoari jarraikiz: Nafarroako Parlamentuko Artxiboari eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko Erregelamendua, zeina Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2023ko urtarrilaren 16an onetsi baitzuen (2023ko urtarrilaren 19ko 8. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua), eta Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Parlamentuko Mahaiak 2023 urtarrilaren 9an onetsia (2023ko urtarrilaren 12ko 4. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

NAFARROAKO PARLAMENTUKO LEHENDAKARIARI

II. ERANSKINA**ERRENTA JASOTZEARI BURUZKO ADIERAZPENA**

Izen-abizenak: _____

NAN zenbakia: _____

Helbidea: _____

Nire ardurapean **ADIERAZTEN DUT**, Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko azterketa-eskubideak eta espediente-formalizaziorako eskubideak ordaintzetik salbuetsia izate aldera (deialdia _____ zenbakiko eta _____ datako Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), ez dudala lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko diru-sarrerarik jaso, hileroko zenbaketan, enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egon naizen denbora-epean, zeinaren berri ematen baita kasuko Enplegu Zerbitzuak jaulki eta atxikita doan agirian.

_____(e)n, 2024ko _____aren _____(e)(a)n.

III. ERANSKINA

Alegatutako merezimenduetarako zerrendatze-eredua

Izen-abizenak: _____ NAN zenbakia: _____. Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko IV. eranskinean ezarritako balorazio-irizpideei dagokienez, honako dokumentazio hau aurkezten dut:

1. DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA (aurkeztu egin behar da, baina ez da merezimendu gisa baloratuko, deialdian parte hartzeko bete beharreko baldintza denez gero):

[] Erantsirik doa deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa exijitzen den titulazio ofizialaren kopia.

2. BALORATZEKO AURKEZTEN DIREN MEREZIMENDUAK:

a) Esperientzia profesionala:

		Administrazio Publikoa	Aldia
a.1)	Nafarroako Parlamentuan eta haren mendeko erakundeetan nahiz beste parlamentu-erakunde edo administrazio publiko batzuetan D mailako gelazain-lanpostu batean emandako zerbitzuak.		
a.2)	Beste parlamentu-erakunde edo administrazio publiko batzuetan D mailako eskolazain, atezain, mandatarari edo telefonista lanpostuetan emandako zerbitzuak.		

b) Beste merezimendu batzuk:

b.1)	Deialdian eskatutako titulazio-betekizuna asetzen duen titulazioaz gain, haren maila baliokidekoa dela ofizialki deklaratu izan den beste titulazio akademiko ofizial gehigarri bat.	Titulazio ofiziala

b.2)	Batxilergoko, erdi mailako edo goi mailako Lanbide Heziketako titulazio akademiko ofiziala edo horietakoren baten baliokide gisa ofizialki deklaratu izan den titulua, edo unibertsitate-diplomatura, ingeniari- edo arkitekturen teknikoak, edo gradu, lizentzia, ingeniari- edo arkitekturako unibertsitate-titulazioak.	Titulazio ofiziala

b.3)	D mailako gelazain, eskolazain, atezain, mandatarari edo telefonista lanpostu baterako oposizio edo oposizio-lehiaketa gauditua, Nafarroako Parlamentuan edo beste erakunde parlamentario batean, edo edozein administrazio publikotan	Ebazpena / argitalpen ofiziala / ziurtagiri ofiziala

b.4)	Euskaraz jakitea (*)	Maila	Titulazio ofiziala

(*) Euskara (B2 eta C1 mailak) merezimendu gisa baloratuko da hizkuntza-eskakizunik gabeko lanpostuen kasuan bakarrik. B2 euskara-eskakizuna duten lanpostuetan, C1 mailako titulua soilik hartuko da merezimendu gisa, B2 maila ezinbesteko baldintza baita lanpostu horietara aurkezteko.

b.5)	Ingeleseko, frantseseko eta alemaneko mailak	Maila	Titulazio ofiziala

[] Atxikita bidaltzen d(ir)ja aurreko ataletan alegaturiko merezimenduetako bakoitzaren frogagiria(k).

_____ (e)n, 2024ko _____ aren _____ (e)(a)n.

(Sinadura)

IV. ERANSKINA

Merezimenduak baloratzeko baremoa

a) Lanbide-esperientzia (20 puntu gehienez ere)

Deialdi hau NAOn argitaratzen den egunera arte Nafarroako Parlamentuan eta haren mendeko erakundeetan, beste parlamentu-erakunde batzuetan nahiz beste administrazio publiko batzuetan D mailako gelazain-lanpostuetan emandako zerbitzuak 20 puntura bitarte baloratuko dira, puntuazio honen arabera:

a.1) Nafarroako Parlamentuan eta haren mendeko erakundeetan nahiz beste parlamentu-erakunde edo administrazio publiko batzuetan D mailako gelazain-lanpostuetan emandako zerbitzuak, dela funtzionario-izaerarekin, dela langile-kontratazioari dagokionez 1991ko martxoaren 20ko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzurako aldi baterako langileak kontratatzeari buruzko 2022ko martxoaren 21eko Erregelamenduan edo gainerako erakunde parlamentario edo administrazioetako araudi analogoan jasotako modalitateetako edozeinen babesean: 2 puntu, lanean emandako urte bakoitzeko.

a.2) Beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak D mailako eskolazain, atezain, mandatarari edo telefonista lanpostu batean, dela funtzionario-izaerarekin, dela langile-kontratazioari dagokionez Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuen testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretuan, Nafarroako administrazio publikoetan langileak administrazio araubidean kontratatze arauak ezartzen dituen irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuan edo araudi analogoan jasotako modalitateetako edozeinen babesean: 1 puntu, lanean emandako urte bakoitzeko.

Apartatu honetako baremoa aplikatzeko irizpideak

1. Urte-kopurua ez baldin bada kopuru oso bat, zerbitzuan emandako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituko da.
2. Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, horren arabera zatia deskontatuko da.
3. Ez dira baloratuko aldi berean emandako zerbitzuak, salbu eta lanaldi partzialean emandakoak badira.
4. Izangaiak prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeran edo jarduneko egoera berezian emandako aldiak zenbatuko dira benetan gauzatutako lanpostuan emandako zerbitzu gisa. Izangaia zerbitzu berezietako egoeran beste arrazoi batzuegatik egon bada, edo eszedentzia berezian egon bada, edo burutza batean, horietan igarotako denbora zenbatuko da egoera horietara iritsi zen unean zeukan lanpostuan emandako zerbitzu gisa.
5. Aurreko azpiataletan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Horrela, bada, kasu bakoitzean haietatik handiena den puntuazioa emanen da.

Merezimenduak a) atalekoak direnean erabili beharreko frogagiriak

Emandako zerbitzuak kasuko erakunde parlamentarioko edo administrazio publikoko organo arduradunak jaulkitako ziurtagirien bitartez frogatu behar dira, non xeheki adierazi behar baitira emandako zerbitzuak, berariaz jasota lanpostuak bertako plantilla organikoaren arabera duen izena, mailaketa, zein zentro edo unitatetan emandako zerbitzualdia den, zerbitzualdi bakoitzaren hasiera- eta amaiera-datak, bai eta guztizko egun kopurua ere.

b) Beste merezimendu batzuk (gehienez ere, 10 puntu)

b.1) Deialdian eskatutako titulazio-betekizuna asetzen duen titulazioaz gain, haren maila baliokidekoa dela ofizialki deklaratu izan den beste titulazio akademiko ofizial gehigarri bakoitzeko: 0,5 puntu.

b.2) Batxilergoko edo erdi nahiz goi mailako Lanbide Heziketako titulazio akademiko ofizial bakoitzeko, edo horietakoren baten baliokide gisa ofizialki deklaratu izan den titulu bakoitzeko, edo unibertsitate-diplomatura, ingeniari-tza edo arkitektura tekniko bakoitzeko, edo gradu, lizentzia, ingeniari-tza edo arkitekturako unibertsitate-titulazio bakoitzeko: puntu 1.

b.3) D mailako gelazain, eskolazain, atezain, mandatari edo telefonista lanpostu baterako oposizio edo oposizio-lehiaketa gainditzeagatik, Nafarroako Parlamentuan edo beste erakunde parlamentario batean, edo edozein administrazio publikotan: 2 puntu, gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.4) Euskara jakitea: Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea den jakite-maila frogatzen duen titulu edo ziurtagiri ofizial bat edukitzeagatik puntu bat emanen da. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 mailaren baliokidea den jakite-maila frogatzen duen titulu edo ziurtagiri ofizial bat edukitzeagatik 0,5 puntu emanen dira.

b.5) Ingelesa, frantsesa eta alemana jakitea, Europar Batasuneko lan-hizkuntzak diren aldetik: Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea den jakite-maila frogatzen duen titulu edo ziurtagiri ofizial bat edukitzeagatik puntu bat emanen da. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 mailaren baliokidea den jakite-maila frogatzen duen titulu ofizial bat edukitzeagatik 0,5 puntu emanen dira.

b.4) eta b.5) ataletako baremoa aplikatzeko irizpideak

1. Hizkuntza bakoitzeko, erdietsitako maila gorenaren titulua edo ziurtagiria baizik ez da baloratuko.
2. Hizkuntza bereko maila bereko titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten badira, behin bakarrik puntuatuko da hizkuntza horren ezagutzaren frogak.
3. Euskara (B2 eta C1 mailak) merezimendu gisa baloratuko da hizkuntza-eskakizunik gabeko lanpostuen kasuan bakarrik. B2 euskara-eskakizuna duten lanpostuetan C1 mailako titulua soilik hartuko da merezimendu gisa, B2 maila ezinbesteko baldintza baita lanpostu horietara aurkezteko. Lehiaketaldia amaituta, epaimahaiak bi zerrenda argitaratuko ditu Nafarroako Parlamentuaren webgunean, izangai bakoitzaren merezimendu-balorazioaren emaitzaren berri emateko. Lehenbiziko zerrendan izangai guztiak jasoko dira, lehiaketaldian lortu duten puntuazioa adierazita. Bigarren zerrendan B2 euskara-eskakizuna duten lanpostuetara ere aurkezten diren pertsonak bakarrik agertuko dira, eta lehenbiziko zerrendarekiko alde bakarra izanen da merezimendu gisa hartuko duela euskararen jakitea C1 mailakoa izatea soilik, B2 maila ezinbesteko baldintza baita lanpostu horietara aurkezteko.

Merezimenduak b) atalekoak direnean erabili beharreko frogagiriak

b.1) Titulazioa frogatuko da horretarako aurkeztuz titulu ofizialaren kopia, edo eskabide-aurkezpenaren epea bukatzen den egunean hori lortzeko eskubideak ordainduta egoteari buruzko ordainagiria. Atzerrian lortutako tituluen kasuan, aipatutako data horretan eduki beharko da horien homologazioaren frogagiri ofiziala edo, kasua bada, baliokidetasun-ziurtagiri ofiziala. Aintzat hartuko dira baloraziora behar bezala frogatuta aurkezten diren tituluak bakarrik, eta ezein kasutan ezin izanen da edukitzat jo alegatua eta agiri bidez frogatua izan ez den merezimendurik.

b.2) Titulazioa frogatuko da horretarako aurkeztuz titulu ofizialaren kopia, edo eskabide-aurkezpenerako epea bukatzen den egunean hori lortzeko eskubideak ordainduta egoteari buruzko ordainagiria. Atzerrian lortutako tituluei dagokienez, aipatutako data horretan eduki beharko da horien homologazioaren frogagiri ofiziala edo, kasua bada, baliokidetasun-ziurtagiri ofiziala.

Aintzat hartuko dira baloraziora behar bezala frogatuta aurkezten diren tituluak bakarrik, eta ezein kasutan ezin izanen da edukitzat jo alegatua eta agiri bidez frogatua izan ez den merezimendurik.

b.3) Izangaiak oposizioa edo oposizio-lehiaketa gainditu izana frogatuko da horren berri ematen duten administrazio-ebazpenaren, argitalpen ofizialaren edo organo eskudunak jaulkitako ziurtagiri ofizialaren kopia baten bidez.

b.4) Euskararen jakitea frogatzeko, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabeko titulu edo ziurtagiriaren kopia bat aurkeztu beharko da, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen irailaren 13ko 210/2010 Ebazpenean zerrendaturik daudenetatik, edo ofizialki baliokidetzat aitorturiko titulu batena, edo hura eskuratzeko eskubideak eskaera-aurkezpenerako epea amaitzen den egunean ordainduta egotearen ordainagiriarena.

b.5) Ingelesa, frantsesa eta alemanaren jakitea frogatzeko, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabeko titulu edo ziurtagiriaren kopia bat aurkeztu beharko da, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen irailaren 13ko 210/2010 Ebazpenean zerrendaturik daudenetatik, edo ofizialki baliokidetzat aitorturiko titulu batena, edo hura eskuratzeko eskubideak eskaera-aurkezpenerako epea amaitzen den egunean ordainduta egotearen ordainagiriarena.

V. ERANSKINA

1. GAIA: Espainiako 1978ko Konstituzioa; zehazki, honako titulu hauek: Atariko titulua. I. titulu: Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak. III. titulua: Gorte Nagusiak. IV. titulua: Gobernua eta Administrazioa. V. titulua. Gobernuaren eta Gorte Nagusien arteko harremanak.

2. GAIA: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa; zehazki, honako titulu hauek: Atariko titulua. Xedapen orokorrak. I. titulua: Nafarroako Foru Erakundeak. III. titulua. Erreforma.

3. GAIA: 14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzkoa; zehazki, honako titulu hauek: Atariko titulua. I. titulua: Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna. II. titulua: Nafarroako Gobernuko lehendakaria. III. titulua. Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak eta kontseilariak.

4. GAIA: 4/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzkoa.

5. GAIA: 19/1984 Foru Legea, abenduaren 20koa, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzkoa.

6. GAIA: 4/2020 Foru Legea, otsailaren 27koa, Nafarroako Sinboloei buruzkoa.

7. GAIA: 81/1986 Foru Dekretua, martxoaren 14koa, Nafarroako Foru Komunitatean lehentasunen antolamendua arautzen duena. 2099/1983 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Estatuko lehentasunen antolamendu orokorra onesten duena.

8. GAIA: 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa; zehazki, apartatu hauek: I. titulua: Xedapen orokorrak. II. titulua: Berdintasunerako erakundeen antolaketako sistema. III. titulua: Berdintasunerako eskubidea bermatzeko tresnak.

9. GAIA: Europar Batasunaren Tratatu (bertsio bategina); zehazki, ondoko atala: III. titulua: Instituzioei buruzko xedapenak.

10. GAIA: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua; zehazki, honako titulu hauek: I. titulua: Nafarroako Parlamentuaren eraketa. II. titulua: Foru parlamentariak. III. titulua: Talde parlamentarioak.

11. GAIA: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua; zehazki, honako titulu hau: IV. titulua: Nafarroako Parlamentuaren antolamendua.

12. GAIA: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua; zehazki, honako titulu hau: V. titulua: Funtzionamenduari buruzko arau orokorrak.

13. GAIA: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua; zehazki, honako titulu hauek: VI. titulua. Legegintzako prozedura. VII. titulua: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren erreforma.

14. GAIA: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua; zehazki, honako apartatu hau: X. titulua: Konfiantza ematea eta kentzea.

15. GAIA: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua; zehazki, honako titulu hauek: XI. titulua: Interpelazioak eta galderak. XII. titulua: Mozioak.

16. GAIA: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua; zehazki, honako titulu hauek: XIX. titulua: Herritarren parte-hartzea. XX. titulua: Gardentasuna eta jarduera parlamentarioari buruzko informazio publikoa eskuragarri izatea.

17. GAIA: Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko erregelamendua.

18. GAIA: Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua.

19. GAIA: Nafarroako Parlamentuko Artxiboari eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko Erregelamendua Honako atal hauek, zehazki: I. kapitulu: Xedapen orokorrak. II. kapitulu. Nafarroako Parlamentuko Artxiboa V. kapitulu: Nafarroako Parlamentuaren dokumentu-ondararako sarbidea eta haren zabalkundea.

20. GAIA: Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren funtzionamenduari buruzko Erregelamendua. Honako titulu hauek, zehazki: I. titulua: Xedapen orokorrak. II. titulua: Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa. III. titulua: Erregistro elektronikoa.

Oharrak:

1) Deialdi honetako gai-zerrendan sartzen den Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua 2023ko martxoaren 16ko Osoko Bilkuran onetsitakoa da (2023ko apirilaren 14ko 76. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

2) Deialdi honetako gai-zerrendan sartzen den Nafarroako Parlamentuko Artxiboari eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko Erregelamendua Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2023ko urtarrilaren 16an onetsitakoa da (2023ko urtarrilaren 19ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

3) Deialdi honetako gai-zerrendan sartzen den Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren funtzionamenduari buruzko Erregelamendua Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2023ko urtarrilaren 9an onetsitakoa da (2023ko urtarrilaren 12ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

4) Europar Batasunaren Tratatua (bertsio bategina) honako esteka honetan dago eskuragarri: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/contenidos/informacion/tr_lisboa/eu_tr_lisbo/tr_lisbo.html

5) Gainerako edukiak deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dauden arauetan agertzen diren bezala eskatuko dira.

